f. g. a. /

GIPUZKOAKO PARTIDA AZKARREN

BANAKAKO TXAPELKETA 2024

TXAPELKETAREN OINARRIAK

1. GXFn federatuta dauden jokalari guztiek parte hartu ahal izango dute.
2. Irailaren 28an jokatuko da.
3. Txapelketa antolatzeko baimena duen klubean jokatuko dira partidak. Txapelketaren ordutegia deialdiarekin batera jakinaraziko da.
4. Joko-erritmoa 3 minutukoa izango da, eta 2 segundo gehituko zaizkio jokaldi bakoitzeko.
5. Txapelketaren joko-erritmoari dagozkien FIDEko xake-arauak aplikatuko dira.
6. Txapelketa hasten den egunean indarrean dagoen Gipuzkoako Banakako Txapelketen Araudia aplikatuko da oso-osorik.
7. Parte-hartzaileen kopuruaren arabera erabakiko da txapelketa liga-sistemaren bidez (Round Robin) edo sistema suitzarraren bidez jokatuko den eta zenbat txanda egongo diren.
8. Txapelketa sistema suitzarraren bidez jokatzen bada, birritan ez bertaratzeak, justifikatuak izan ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Epaileak hautazkoa izango du lehen txandara falta den jokalaria kanporatzea. Jokalariak epaileari txanda argitaratu baino lehen ohartarazten badio bertaratuko ez dela, ez da ez bertaratutzat hartuko.
9. Txapelketa Liga sistemaren bidez jokatzen bada (Round Robin), birritan ez bertaratzeak, justifikatuak izan ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Jokalari batek txapelketako partiden erdia baino gutxiago jokatzen badu, sailkapena egiterako garaian emaitza guztiak baliogabetuko zaizkio.

FEDERACION GUIPUZCOANA DE AJEDREZ
GIPUZKOAKO XAKE FEDERAKUNTZA
Anoeta Pasealekua, 5 Dpto, 11 – 20014 DONOSTIA
Teléfono 943 47 46 04
e-mail: xake@fgajedrez.org - Web: www.fgajedrez.org

10. Joko-aretoan ez da analisirik onartuko.

11. Jokalariek ezingo dute joko-aretotik atera beren partida jokatzen ari diren bitartean, epaile-taldeko kideren baten baimenarekin ez bada. Hark, txandaren egoera orokorra edo irteteko beste baimen batzuk baloratu ondoren, ateratzeko baimena ematen dieten ala ez erabakiko du. Jokalariek ezingo dute analisi-gelara sartu partidak abian diren bitartean.

12. Txapelketa sistema suitzarraren bidez egiten bada, puntuaketan berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

    a. Bucholz, emaitzarik txarrena kenduta
    b. Bucholz, guztira
    c. Sonnenborn-Berger
    d. Garaipen-kopurua
    e. Zozketa

Bucholz kalkulatzeko, jokatu gabeko partidarik egonez gero, erabilitako programak aplikatutako zuzenketaren bat egingo da, epailearen irizpidearen arabera.

13. Txapelketa liga -sistemaren bidez (Round Robin) egiten bada, puntuetan berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:
    a. Sonnenborn-Berger
    b. Berdindutakoen arteko emaitza partikularra
    c. Garaipen-kopurua (ez bertaratzeagatik irabazitakoak barne)
    d. Txapelketako pieza beltzen kopurua (jokatu gabeko partidak barne)
    e. Pieza beltzen kopurua berdindutakoen artean
    f. Zozketa

Berdinketa hausteko sistema bat aplikatzearen ondorioz berdinduta dauden jokalarien kopurua gutxitzen bada, berdinketa hausteko sistemak berriro aplikatuko dira hasieratik.

14. Epaileak txanda hasteko agindua eman eta 5 minutura taulara agertu ez den jokalariak partida galduko du, ez bertaratzeagatik.
15. Izendatu eta ordaindu behar dituela uste duen txapelketa-epaileak izendatu eta ordainduko ditu GXFk.
16. Sariak:
    1. Garaikurra
    2. Garaikurra
    3. Garaikurra
17. Txapelketan parte hartzen dutenek baimena ematen dute antolatzaileek ekitaldia behar bezala zabaltzeko egokitzat jotzen dituzten komunikabideetan beren datu pertsonalak argitaratzeko (emaitzak, sailkapenak, partidak, argazkiak, etab.).
18. Txapelketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta aplikatu beharreko gainerako araudiak onartzea eta betetzea.